

Izarrak leun argi dagi
bere ibilli sotillean,
argi, kantu gaitezen gu
alai geure etxaldean.

Orri-loren intzirían
betorkigu biotzari
urte aro guztietan
eiera antzo gu kantari.

GURE UMEAK

Guraso izateak badu zorionik. Senar-emazteon biotzak aurrak lotu oi dituzte korapillo maitekorrez. Guk iru dauzkagu: Mikel, bederatzi urtekoa, bizkor ta zoli, eskolara dabil; Jontxu, bostekoa, begi-ñarñar ta ille gorri, oraindik seaska eder zaiona. Amonak badu irurakin jolasik aski: makiña bat ipuin entzunak dira aiek onen ezpaiñetatik. Eta gu biok maíz egon oi gera, erdi-txoratuak, lauoi begira ta aditzen.

Doiñu: «Jesus maitea zan...».

Basoan eder da kimu txit oraila,
sendian orobat muskil berri sailla;
guk emen dauzkagu iru xima (1) eder,
iru muxu gorri, ta iñor ez alper.

Senar-emazteok onek lotzen gaitu,
maitasuna ere biotzean sutu;
itxarokizuna digute arrotzen,
ta gogotsugo guk lanari ematen.

(1) Bota.

Etxean zer ikus, ikasten umeak:
ezpei agindurik gugan asarreak;
ezta zabarkeri (2) ezpei izan gugan,
botarte alaikor edonoiz gaitezan.

Diruak ez nadin itsutu geiegi,
iñoiz ez dut bera izango maiteegi;
etzait eder sosa, ez eta zikoitza,
asko naitik lasai bebilkit biotza.

Aginpide latzik ez dut agertuko,
ez etxe barnean, ezta ere kanpo;
olakoak ez du atsegin itxura
eta bai edonoiz barruan tristura.

Ene lagunaren zorion joriak
neroni dakarzkite naikari biziak:
etxaldea jasez dezakegun jaurri
bear dugu izan guztiok lokarri.

Saiatu ezkerro den-denok lanean
zoriona dugu irrikor atean;
gaitzak zaurituak iñoiztxo bagiña,
berriro genduke laster atsegiña.

Ume ta etxalde, gure axol beñak,
Jainkoak emanik dauzkagu bereñak (3)
Baserrian dena guk dugu jasoko,
ta geroak digu noizbait eskertuko.

(2) Nagikeria

(3) Askoak.